

Eraso! eta Kokein,  
gaur, Bonbereneako  
taula gainean

Bihar, Xabier Erkiziak eskainiko  
du zuzeneko emanaldia ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2005-11-11 ▶ III. urtea ▶ 734. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## Etzi bukatuko da zaldi lasterketen denboraldia

**ASTEASU** ▶ Asteasuko motokros  
zelaian jokatuko dute denboraldiko  
azken proba etzi goizean

**ESKUALDEKOAK** ▶ Iñaki Izagirre  
asteasuarra da lehen sailkatua;  
Tolosaldekoak, punta-puntan ▶ 6

LEITZALDEA ▶

Lizarrako  
Txapelketa  
irabazteko  
atarian

Aresoko eta Leitzako  
pilotariak ari dira ▶ 7

## Alkiza, Amasa eta Amezketeta jai giroan, San Martin Eguna ospatzeko

**TOLOSALDEA** ▶ Askotariko ekitaldiak antolatu  
dituzte hiru herritan; Amasan, Gazteen  
Eguna egin zuten atzo, giro onean ▶ 4



Olaberria. L. GARRO / OARSOALD. HITZA

**LEIRE OLABERRIA** ▶  
TXIRRINDULARIA

«Munduko  
Kopan  
lehiatzearekin  
helburua  
bete dut»

Pistako Munduko  
Kopan maila ona  
ematen ari da  
ikaztegiatarra ▶ 5

L. GARCIA



TOLOSA ▶

## 'Abenduak 29' disko berria aurkeztuko du Jabier Muguruzak

Kultur Etxean eskainiko du kontzertua;  
«gustuko» du Tolosako entzulegoa ▶ 3



**jantzi**  
**hitza**ren  
jertse berriak

HITZAren egoitzetan salgai

## GIZARTEA ▶



Jordi Moreras eta El Manar elkarteko ordezkariek —eskuinean eta ezkerrean—, atzo, hitzaldia ematen. i. r.

## Gaurkoan, inmigrazio klandestinoak hizpide

Proiektzioaren ostean, solasaldia izango da Kultur Etxean; biharko afarirako txartelak salgai dira hainbat tabernetan

## GASTRONOMIA ▶

## Babarrun lehiaketan parte hartzeko

Gaur da izena emateko azken eguna Gure Kaiola elkartearen egoitzan

## I. ETXEBESTE

Gure Kaiola elkarteak Tolosako XIX. Babarrun Lehiaketa antolatuta du hilaren 20rako. Tolosako Udalak urtero antolatzen duen Babarrun Astearren barruan, Ferialekuan izango da aurten ere txapelketa, 08:30ean hasita. Bertan parte

hartzeko izena eman behar da aldez aurretik, eta gaur da horretarako azken eguna.

Antolatzaileek adierazi dute elkarteak Agintari kalean duen egoitzan eman behar dela izena, 10:30etik 12:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. 607 67 27 09 telefono zenbakira deituz ere badago.

Bi sari mota banatuko dituzte Gure Kaiola elkarteak lehiaketan parte hartzen dutenen artean: prestaketari dagokion alde batetik —eta kategoria horren baitan bost sari banatuko dituzte—, eta itxurari dagokion, bestetik —hiru sari bertan—. Babarrunak antolatzaileek emango dituzte.

## IRATXE ETXEBESTE

Irazki elkarte kulturantzakoak «gustura» dira Tolosako II. Magrebeko Jardunaldiak ematen ari direnarekin. Izan ere, jardunaldien baitako lehen hitzaldietan «jende dezente» elkartu da Kultur Etxean. Zehazki, 50 lagun izan ziren asteartean ezkontza mistoei buruzko solasaldia aditzen, eta herenegun ere beste hainbestek jarraitu zuten *Islama eta Mendebaldeko Europa: bizikidetzarako giltzak* izenekoa.

El Manar elkarteko ordezkariek azken egunotan Frantziara gertatzen ari dena izan zuen aiputan solasaldiari ekitekoan. «Hori ez da mundu islamiarrak sortutako afera; Frantziako, Frantziaren arazoa da, istiluetan parte hartzen ari direnak han jaotakoak direlako; eta estatutik horretako ordezkariek oso ondo dakite hori». Jordi Moreras Bartzelonako CIDOB Fundazioko kideak zioen «nabaria» dela Frantziako Inmigrazio Ereduak huts egin duela. Zibilizazioek ez, baizik eta talka pertsonen egiten dutela onartu ezean, elkarbizitzea «ezinezko» izango dela esan zuen segidan, eta «gurea besteena baino hobea dela uste dugulako» gertatzen dela hori.

Atzoko mahai-inguruaren ostean, *Inmigratio klandestino* izeneko proiektioa izango da gaur Kultur Etxean, eta bihar askotariko ekitaldiak izango dira. Gauean, afaria egingo dute Abastos plazan, eta bertara joan ahal izateko txartelak erosi behar dira aldez aurretik. 12 eurotan, Tolosako Orbela, Iratxo, 66 eta Raku eta Ibarrako Zubiaurre tabernetan dira salgai. Iñaki Edrosoren *Magreb-a: herri eta kamioen bidetuzte* argazki erakusketa Kultur Etxean ikus daiteke jardunaldiak bukatu bitartean.

## EGITARAU ▶

Irazki elkarte kulturantzako antolatutako Tolosako Magrebeko II. Jardunaldiak aurrera doaz, eta bihar bukatuko dira. Ordu arte, baina, askotariko ekitaldiak izango dira herrian. Gaurko eta biharko prestatu dituzten ekitaldiez gain, esan behar da jardunaldiek irauten duten bitartean Iñaki Edrosoren argazki erakusketa izango dela ikusgai Kultur Etxean. Hauek dira ekitaldiak:

## GAUR

**19:30.** *Inmigratio klandestino* izeneko proiektioa eta solasaldia izango da Kultur Etxean.

## BIHAR

**11:00.** Askotariko ekitaldiak izango dira Triangulo plazan ordu horretatik aurrera: kalejira Afrikako folklorea zabaltzen duen Ganawa musika taldearekin, idazkera bereberko tailerra, henna tailerra, ogi tailerra, dastatze gastronomikoa, artisautza tradizionalako postua, haurrentzako ipuin kontaketa...

**11:00etatik aurrera.** Ceuta eta Melillako (Espainia) hesiari buruzko kale erakusketa.

**19:00.** *Ni, Mohamed* izeneko antzezlan eskainiko dute Zurriola Antzerki Eskolako kideek Aranburu Jauregian.

**21:30.** Afaria Abastos plazan. Harira, cous-cousa barazki eta haragiarekin, tea eta pasta tradizionalak.

**Ondoren.** Kontzertua Abastos plazan: Bartzelonako Cheb Mouguit taldea eta jarraian dantza talde baten emanaldia. Bi dantzarik sabel dantza saioa eskainiko dute.

hitza

# lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira

## Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**

TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**

San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROAK**

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**

OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

MUSIKA ▶

# Jabier Muguruzak 'Abenduak 29' disko berria aurkeztuko du

Gaur eskainiko du kontzertua Kultur Etxean, 22:30ean; disko berriko kantuak bere beste lanekoekin uztartuko ditu

NOELIA LATABURU

*Abenduak 29.* Ez da ekitaldiren baten iragarpena, ez eta gaurko data ere; Jabier Muguruza musikari irundarraren azken diskoaren izenburua baizik. Eta aurkezpena jendartera zabaltzeko emanaldia eskainiko du gaur, 22:30etik aurrera, Tolosako Kultur Etxean. Kantautore gisa plazaraturiko zortzigarren lan honetan, gitarra akustikoa eta neska baten ahotsa ditu lagun Muguruzaren ahotsak, eskusoinuaz gain. Punta-puntako musikariak aukeratu ditu, gainera, azken diskorako, bere «musikaren kontzeptura» ezin hobeto egokitu direnak: Angel Unzu gitarran eta Mireia Otzerin jauregi ahotsan. Sarrerik gabe azaltzen zaitgu, beraz, egilea.

Abestien testuei dagokienez, bestalde, bere ohiko kolaboratzaileekin batera —Iñaki Irazu, Bernardo Atxaga, Jose Luis Padron, Gerardo Markuleta— ekarpen berri batzuekin dator musikaria oraingoan, ospe handiko euskal poetak, guztiak: Harkaitz Cano, Kirmen Uribe eta, nola ez, kantautoreak berak sortutako hitzak. Muguruzak diskoan jorratzen duen tematika bere lehen lana zuen ildo beretik jarraitzen du, eguneroko bizitza, hain zuzen ere. Testu guztiak, beti ere, sinatu dituzten egile handien maisutasunez jorratuak daude. *Abenduak 29* diskoa Kataran grabazio estudioetan burutu du, Jorge Drexler kantariaren kolaborazio bereziarekin.



*Abenduak 29*, bere azken diskoa, aurkeztuko du musikariak. HITZA

Gaur aurkeztuko duen lanak «onarpenean» izan duela aitortu du Muguruzak. «Aldaketa handiena abestiak babesten duten instrumentuetan datza», abeslariaren beraren esanetan. Horrela, «jazz klubetarako formatoa» aldatu eta bere musika «biluztu» du irundarrak, bere estiloari uko egin gabe. Tolosan emanaldia emateko «gogotsu» dagoela ere adierazi du, «lagun bereziak» dituelako bertan, bai eta «beti oso ondo artatu» izan dutelako ere. Ez da hau Jabier Muguruzak eskaintzen duen lehen kontzertua azken diskoaren harira, Donostian, Nafarroan eta Katalunian ere izan baita.

Eskarmentu handiko gizona dugu Muguruza. Bost urte zituela musika munduan murgildu zen. Akordeoiarekin kontzertuak ematen hainbat urtez aritu ondoren, proiektu ezberdinetan parte hartzen hasi zen, bai rock baita kantautore munduan ere: Zarama, Imanol, Kortatu, Antton Valverde, Xabier Lete, Delirium Tremens... 1989. urtean, bide pertsonalago bati ekinez, haurrentzako diskoa grabatu zuen, *Ja, Ja!* izenekoa. 1990ean Les Mecaniciens pop taldea sortu zuen, eta modu horretara hiru lan kaleratu zituen: *Erabakia* (Elkar), *Ja Xoragaria* (1992) eta *Euskadi jende gutxi* (1993).

KULTURA ▶

## Kontzertu gehiago gaur eta bihar Bonberenean

Eraso! eta Kokein taldeak ariko dira gaur; biharkoan Xabier Erkiziak egingo du bisita

N. LATABURU

Urteak aurrera darrai eta Bonbereneako agendak ez du etenik. Horrela, gaur eta bihar ere hainbat kontzertu izango dira ikusgai. Erasol! eta Kokein taldeen txanda izango da gaur, 22:30etik aurrera. Erasok bere laugarren diskoa aurkeztuko du, *Kontra* izenekoa. Taldea 1996. urtean sortu zen. Guztira, lau lan plazaratu ditu taldeak: *Erantzunik gabe* (1999), *Oraina eta geroa* (2001), *Grisez bustitako egunak* (2003) eta, azkena, gaur aurkeztuko dutena. Kokein taldeak ere baditu hiru disko bizkar gainean. Lehenengoa

2002. urtean argitaratu zuten, *Kokein* izenarekin. Urtebete beranduago, 2003an, *Basque Planet* iritsi zen, eta iaz, 2004ean, *Lotuta egon arren* izeneko azken lana plazaratu zuen taldeak. Azken hau abesti rockeroago eta landagoekin, «taldearen sendotasuna bermatzen duen kanta bilduma» osatuz.

Bihar, berriz, Mikel Erkizia musikaria ariko da, Feli Buff, Iñigo Telletxea eta Edorta Izarzugazarekin batera. Guztiek ere beren lanak emango dituzte ezagutzera Bonberenean, 22:30etik aurrera. Jendea bertara gerturatzea animatu nahi izan dute etxekoek.

MUSIKA ▶

### Esteban Elizondoren diskoak salgai

Pasa den hilabetean Tolosan Felipe Gorritiren lanekin Esteban Elizondok egindako bi disko aurkeztu zituzten. Aipatu diskak salgai jarri dituzte Kultur Etxeko bulegoetan. Salneurria 6 eurokoa izango da, bi diskoak batera. Informazio gehiago nahi duenak bertara jo dezake.

HEZKUNTZA ▶

### DBH titulua lortzeko proba libreak

Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko proba libreetan izena eman nahi dutenek epea irekia dute hil honen 18ra bitarte. Azterketa eguna abenduaren 13a izango da, 09:30ean, 12:00etan eta 15:30ean. Argibide gehiago, 943 67 26 60 telefono zenbakian.

GIZARTEA ▶

### Etorkinek errolda berri behar dute

Tolosako Udalak gutun bat bidali die «2003ko abenduaren 21a baino lehen Tolosan erroldatuta egon, eta behin betiko erresidentzi baimena ez duten etorkin guztiei», bere bulego orokorretara azaldu eta errolda berri dezan. Iraungipena dela eta, errolda eguneratzen ez duenari «baja» emango zaiola jakinarazi dute Udaletik, eta errolda berritzeko epea abenduaren 21ean bukatzen dela. Bi urtetik behin berri beharko dute.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



SANMARTINAK ▶

# Ohiturak jarraituz

San Martin Eguna ospatuko dute gaur Alkizan, Amezketan eta Amasan; azken honetan Gazteen Eguna izan zen atzo

IMANOL GARCIA

San Martin Eguna izaki, jai eguna dute gaurkoan Amasan, Amezketan eta Alkizan. Horren aurretik, ordea, Amasako sanmartinen baitan, Gazteen Eguna ospatu zuten atzo. Herriko hainbat gazte elkartzen dira antolatzen dituzten ekitaldietan. Ahal duenak jai hartzen du atzoko eguna, eta askok gaurkoa ere bai, gorputzari atsedena emateko.

Goizean goiz elkartu ziren atzo 50 lagun inguru eta, ondo gosalduta ondoren, herriko baserriak eta etxeak bisitatzeari ekin zioten. Bi taldetan banatu ziren: batek herriko goialdea hartu zuen, eta besteak behealdea. Trikitixa, dultzaina, tamborra eta panderoa izan zuten lagun baserri baserri ibiltzean. Batzuek oiloak ematen zizkieten, baita dirua ere, eta jatekorik eta edatekorik ez zen falta izan goiz guztian. Aurreko urtean ez bezala, eguraldia lagun izan zuten, eta presa handirik gabe joan ziren baserrietako atari guztietara. Dantza saioa eskaini ondoren bidetara ekiten zioten gazte amasarrek.

Batzuk, eskean, musika eta dantza txoko guztietara eramaten zuten bitartean, beste batzuk Uxo-toki elkartearen egitekoak ziren bazkaria prestatzen aritu ziren. Elkartea goraino bete zen, ohi bezala. Jaiak hartzeko aukera ez zuen ere orduan elkartu zen taldearekin.

Bazkariaren ostean soka-

dantza eta aureskua egin zuten plazan eta, ondoren, erromeriarekin amaitu zituzten arratsaldeko ekitaldiak. Eguna biribiltzeko, beste ohitura bat: Arantzabi jatetxean afaria.

## Ekitaldiak non-nahi

Gaur egun nagusia izango dute Amasan. Artzain zakur lehiaketa izango dute eguneko berezitasun. Ez dira faltako Pirritx eta Porrotx pailazoen frontoian emango duten emanaldi arrakastatsua ezta afaletik egiten den Bakailoa Lehiaketa ere; aurten hamaseigarren edizioa egingo dute.

Amezketan ere ospatuko dute San Martin Eguna. Helduentzako eta haurrentzako ekitaldiak prestatu dituzte. San Martin baselizako meza eta Txindokiko bazkaria izango dira goiz partean, eta arratsaldean puzgarriak eta txotxongilo emanaldia haurrentzat.

Herriko zaindaria izan arren, Alkizan lehen ez zuten ezer berezirik egiten, baina aurten hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Hain zuzen ere, Udala, Beleburupe Guraso Elkarte eta Abesbatza Taldea elkartu dira antolaketa lanetan. Udalak hamaiketako eskainiko die herritarrei; haurrentzako ekitaldiak guraso taldearen esku geratu dira, eta abesbatzak kontzertua eskainiko du parrokiari. Alkizarrei afarietan parte hartzeko gonbita luzatu diete antolatzaileek.



Baserrietako atarietan dantza saioak eskaini zituzten atzo gazte amasarrek. I. GARCIA



Amasako goialdeko baserrietan ibili zen gazte taldea. I. GARCIA

**TOKIA:**  
Elorriro Kiroldetza

**EGUNA:**  
2005eko azaroaren 11an

**ORDUA:**  
goizeko 9:00etan

**IZEN EMATEA:**  
Telefonoz: 943 492 522  
Egunean bertan: 9:00etatik 10:00etara

Antolatzailea

2005

## EGITARAUA ▶ GAUR

### ALKIZA

**11:00.** Meza nagusia. Ondoren hamaiketako herritarrentzat, doan, herriko hiru tabernetan.  
**16:30.** Haur jolasak. Ondoren, merienda haurrentzat.  
**19:30.** Ipuin kontalaria Kultur Etxean.  
**20:30.** Herriko abesbatzaren kontzertua parrokiari. Ondoren, afaria, norberaren kontura herriko edozein tabernetan.

### AMASA

**11:00.** Meza nagusia.  
**11:30.** Artzain Zakur Lehiaketa.  
**17:15.** Pirritx eta Porrotx-en emanaldia. Gero, bokolatada.  
**20:00.** Amasako XIV. Bakailoa Lehiaketa. Ondoren, bakailoa eta sagardoa doan izango da nahi duenarentzat.  
**00:00.** Dantzaldia Izotz taldearekin.

### AMEZKETA

**11:00.** Meza nagusia San Martin baselizan.  
**14:00.** Bazkaria Txindoki jatetxean. Xafre trikitilaria eta Mañukorta eta Zeberio bertsolariak bertan izango dira.  
**15:00.** Haurrentzako puzgarriak goiko frontoian.  
**18:00.** Enkarni Genuaren *Itsasmin* txotxongilo emanaldia goiko lokalean.

LEIRE OLABERRIA ▶ TXIRRINDULARIA

# «Munduko Kopan lehiatu ahal izatearekin helburua bete dut»

Pistako Munduko Kopan ari da ikaztegiatarra;  
Munduko Txapelketan parte hartzeko puntuak lortu ditu



LANDER GARRO / OARSOALDEKO HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Orain bi urte ekin zion 28 urteko ikaztegiatarrek pistako txirrindularitzari, eta epe honetan makina bat garaipen bilduak ditu. Horiei esker, Bordelen 2006ko apirillean izango den Munduko Txapelketan sailkatzeko puntuagarriak diren 4 probetan banaturiko Munduko Kopan ari da parte hartzen Espainiako selekzioarekin. Lehena pasa den asteburuan izan zuen Moskun eta emaitza onak lortu zituen, zortzigarren postuan amaitu baitzuen scratch sailean. Beraz, puntuak batuz ekin dio.

**Bi urteren buruan munduko txirrindulari onenen artean aritzea lortu duzu. Nola egiten da hori?**

Atletismoan urte askoan aritunaiz, eta uztea erabaki nuen. Mutil-lagunak animatu ninduen pista txirrindularitzarekin hastera, eta hasieran zale-tasuna baino ez zena pixkanaka espero gabe mailaz igotzen joan naiz. Hori bai, lan handia eta entrenamendu ugari egon dira tartean. Hala, epe horretan lortu ditudan garaipenak aintzat hartuta Espainiako selekzioarekin lehiatzeko aukera eman didate.

**Estreinakoa izateko ederki aritu zara.**

Munduko Kopan aritzearekin nire helburua bete dudala esan daiteke, eta zer esanik ez bertan emaitza onak lortzen badituz. Oso gustura nago, zortzigarren izatea lortu nuelako, eta puntuak batu ditugunez aukera handiak izango ditugulako Munduko Txapelketan parte hartzeko.

**Une ezin hobea ari zara igarotzen. Denak ez dira, ordea, horrelakoak izan.**

Noski ezetz. Lan handia egin beharra dago honaino iristeko; entrenamendu gogorrek, etxetik kanpo igaro beharreko tar-teak, aldi berean kirola, lana eta ikasketak egitea... Hala ere, emaitza onak lortzean ikusten duzu egindakoaren saria jaso duzula eta merezi duela. Uneoro zure ondoan dagoen jendearen laguntza ere beharrezkoa da horrelakoetan.

**1.a**

**ZU ZARA LEHENA BANDA ZABALEAN**

Gure **92.077 bezeroak** jaun eta jabe dira Interneten.

Desberdinak dira denak. Bere beharrak asetzeko **BANDA ZABALE**ko produkturik egokiena du bakoitzak. Horregatik gara jaun eta jabe **BANDA ZABALE**an. Zu zaitugulako helburu.

Deitu **1717** telefonozenbakira, eta gehien komeni zaizun Banda Zabaleko produktua aukeratzen lagunduko dizugu. Adibidez, gastua kontrolatu nahi dutenentzat:

**DESPEGA RECARGA**

> Kontsumitzen duzuna bakarrik ordaintzeko. 4, 8 edo 12 orduko bonuak, **5 €-tik hasita**.

Zeharkako zergak sartu gabe claude acieraztako prezioetan.

**Euskaltel**  
kalea gahurra

## BALIARRAIN ▶

## Kultur Elejiraren baitan, ipuin kontaketa saioa

Kultur Elejiraren baitan egiten ari diren ekitaldiak azo hasi ziren. Gaur, Iñaki Martiarena *Martin* marrazkilaria eskutik, ipuin kontaketa saioa izango da, haurrentzat.

## EHNA ▶

## EHNA eskuratzeko aukera etzi

Etzi EHNA egiteko aukera izango da Alegialdean: Baliarrainen, 12:00etatik 14:00-etara, Kultur Etxean; Albizturren, berriz, 11:30etik 14:00-etara, udaletxean. Hiru argazki, errola agiria eta 15 euro eramane behar dira EHNA tramitatzeko.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun zentroa: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun zentroa: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerbitzua: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

## ZALDI LASTERKETAK ▶

## Etzi jokatuiko dute Asteasun denboraldiako azken proba

Azken lasterketaren esperoan, Iñaki Izagirre asteasuarra lehen sailkatua da

## MARTA SAN SEBASTIAN

Urtarrilean izan zen lehen lasterketa eta, azkenean, etzi egingo dute sailkapen orokorrean puntuagarria izango den Gipuzkoako Zaldi Lasterketa denboraldiaren azken proba. Asteasun izango da zaldi lasterketa zaleek hainbeste itxaron duten proba hori. Interes handia piztu du lehiak, behin-behineko sailkapeneko lehen hirurak Tolosaldekoak baitira: Iñaki Izagirre asteasuarra, Axier Mujika zizurkildarra eta Garikoitz Lasa bidaniarra.

Iñaki Izagirre asteasuarrak, beraz, etxean garaipena lortzeko aukera izango du Fikus zaldiarekin. 26 puntu lortu ditu denboraldian, baina sailkapenean gertu du bigarren sailkatua. Axier Mujika, 24 punturekin. Hirugarren sailkatuarekin, aldiz, dezenteko tartea dute, Garikoitz Lasarekin, alegia. Bidaniarrak Orkatx zaldiaren gainean 15 puntu lortu ditu. Beraz, baliteke benetako lehia lehen bi sailkatuen artean izatea. Hortaz, garaipena eskualdean geratzeko aukera asko daude.

22 zaldunek parte hartu dute denboraldiko lasterketetan, eta 12 zaldunek lortu dute azken proba erabakigarrian ari zitea.

## MILLAN TELLERIA ▶ ZALDI LASTERKETEN ANTOLATZAILA

## «Izugarrizko jarraipena izan dute lasterketek eta oso pozik gaude emaitzekin»

Millan Telleria albiztuarra Gipuzkoako Zaldi Lasterketen antolakuntzako kide da. Bost lagunek osatzen dute taldea, eta horietako batzuk lasterketetan ere parte hartzen dute. Probek izan duten jarraipena dela eta, «oso pozik» da.

**Zer izan duzue kontuan lasterketak antolatzerako orduan?**

Parte hartu nahi zuten herriek guregana jo dute, eta guk baldintza batzuk jarri dizkiegu. Hala ere, Udal bakoitzak autonomia izan du ibilbidea kokatzeko. Adibidez, Donostian, Gertarian eta Deban hondartzan egin zen, eta Abaltzisketan, al-

## SAILKAPENA ▶

1. Iñaki Izagirre	26 puntu
2. Axier Mujika	24 puntu
3. Garikoitz Lasa	15 puntu
4. Josu Lizaso	13 puntu
5. P. Antonio Virgala	12 puntu
6. P. Joxe Saizar	10 puntu
6. Igor Castañares	10 puntu
6. Aitor Odriozola	10 puntu
7. Millan Telleria	7 puntu
8. Xabin Gogorza	6 puntu
9. Iñigo Agirrezabalaga	4 puntu
10. Xanti Telleria	1 puntu

## Nondik-norakoak

12 zaldun lehiatuiko dira, beraz, etzi. Asteasuko motokros kanpan. Hala ere, berezitasun bat badu aurtengo lasterketak. Sailkapenean hiru zaldun berdindurik daude 10 punturekin. Hori konpontzeko, puntuakerrako balio duten lasterketa egin aurretik, berdinketa hori hausteko proba egingo dute, 11:00etan. P. Joxe Saizar Gorri zaldiarekin, Igor Castañares Odei zaldiarekin, eta Aitor Odriozola Sflin zaldiarekin dira hiru zaldun horiek.

Proba hori irabazten duen zaldunak ohorezko txandan lasterka egingo du, gainerako bost zaldun onenekin batera. Aldiz, berdinketa hausteko lasterketa horretan bigarren eta



Irudian, lazko irabazlea, Igor Castañares elgoibartarra. OLAJA ESKITXABEL

hirugarren geratu diren zaldunak kontsolazio txandan lehiatu dira beste lau zaldunekin. Hori guztia, 13:00ak inguruan izango da.

Kontsolazio txandan 3, 2, 1, 1 eta azkenengoari ere puntu bakarra emango dizkiete epaileek zaldunei. Eta ohorezko txandan, ondoren, 5, 4, 3, 2, 2 eta 2 puntu. Guztira jasotako puntuak batuko dira, eta zaldun irabazlearen izena ezagutu

tuko dugu. Lehenengo bien artean berdinketarik balego, ordu laurdenera lasterketa egin beharko dute.

Gerturatutakoen gozagarri-rako, goizean sementalen erakusketa egongo da Asteasun. Gainera, umeek zaldietan ibiltzeko aukera izango dute; baita Iñaki Toloxaren karroan ere. Ondoren, 14:00etan, Gipuzkoako Zaldi Lasterketa denboraldiko sari banaketa egingo dute.

mota askok parte hartzen dute-lako, azkarrak, kruzatuak... Uste dugu oreka bilatu behar dela zaldi guztientzat. Guk, gaineratzean, ez diegu bestelako baldintzarik jarri.

**Lortutako emaitzekin gustura al zaudete?**

Jarraipen itzela izan dute aurtengo ligaxkako lasterketek. Jende asko ibili da Gipuzkoan zehar lasterketan jarraitzen, eta hori nabarmena izan da. Gu oso pozik gaude.

**Datorren urtera begira, aldatarik egin nahi al duzue?**

Beti dago zerbait hobetzeko. Gure helburua jendeak gozatea da, eta ez dugu ibilbide

arriskutsurik jarri nahi zaldiek lasterka egiteko. Zaldiekin gozatu egin behar da, eta ez beldurra pasatu. Honez gain, zaldien mundua nolabait jendeari gerturatu nahi diegu, zaldi jolasen bidez, esaterako.

**Ezustekoa izan al da lehen hiru sailkatuak eskualdekoak izatea?**

Tolosaldean zaldi zaletasun handia badago. Hala ere, denboraldia luzea da, eta zorte kontua ere bada, mila gauza gertatu daitezkelako, zaldiak min hartu, adibidez. Hala ere, ez da kasualitatea eskualdeko zaldunak punta-puntan ibiltzea. ◀



PILOTA ▶

# Lizarrako Txapelaren bila doaz Aresoko eta Leitzako gaztetxoak

Igandean jokatu dituzte bakoitzak bere adin tarteari dagozkion finalurreko partiduak; Leitzan ere ariko dira



Hainbat herritako txapelketetan parte hartzen dute. M. Sagastibelza (ezkerrean) Leitzakoan sariarekin. J. A.

## JAIONE ASTIBIA

Leitzako eta Aresoko hainbat eta hainbat gaztetxo aritzen da astebururo-astebururo hango eta hemengo pilota txapelketetan, Kirol Joko ekimenetan... Eurak beren gurasoekin, hara eta honera ibiltzen dira erabat, «saria eta xedea» kirola egitea dutela.

Eta guztiak aitatzea zaila izanik, besteak beste, asteburu honetakoan, Lizarrako Txapelketari buruzko oharra egin dute Aurrera Pilota Eskolatik. Pilota Eskolako hainbat pilotari

gaztetxo txapelketa horretako finalurreko fasean aritzekoak dira, igande honetan berean, 10:00etatik aurrera, Lizarrako pilotalekuan egingen den jaialdian.

Hiru dira, eta bakoitzak bere adin tartean ari behar du: Mikel Sagastibelza Lasarte leizarrak, 2. partiduan; Jon Jaunarena leizarrak, 8. partiduan; eta Anartz Olanok, aresoarra da bera, arratsaldeko saioan egin beharko du ahalegina, 16:00etatik aurrera, aurreneko partiduan. Partiduak irabaziz gero, Lizarrako txapela eskura-

tzeko azken lehia iragaroko lirateke.

Edozein moduz, txapelketa ez diren bestelako ekimenetan ere parte hartu ohi dute gazte eta gaztetxoek, Nafarroako Kirol Jokuetan konparaziora; eta, ondorioz, Amazabal pilotalekuan igandero izaten dira ikusgai partiduak. Horrela, honetakoan, besteak beste, 22 urtez behiko pilotarien salean, Unai Onsalo aresoarrak partidua du, eskolako den Patxi Bete-luk bezala. Kasu honetan, Irurtzango eskolako aurka jokatu beharko dute.

## LEITZA ▶

### Bide Eginez-en batzarra du gaur Batasunak

Gaur iluntzean, 20:00etatik aurrera eta Aurrera elkartean, herri batzarra egingen du Leitzaldeko Batasunak, Bide Eginez prozesuaren barnean, eta bertan parte hartzeko deialdia egin dute antolatzaileek. Batasuna bere barne eztabaida egiten ari da, herri herri deitutako bilkuren bidez, «aurrerako ibilbidea eztabaidatu eta erabakitze-ko» helburuz.

## LEITZA ▶

### Gaurko talo eta gaztain jatea atzeratu egin da

Gaur gauean, 21:00etarako iragarritako bazegoen ere, arrazoi desberdinak tarteko direla, Iruso jatetxean egitekoak zuten talo eta gaztain erre jatea ez dute egingen. Hala jakinarazi zuten atzo. Oraingoan, beraz, bertan behera gelditu da saiakera eta telefonoz deitu eta bertan parte hartzekoak zirenei horren berri jakinarazi nahi izan diete.

## LEITZA ▶

### Atekabeltzen auzolana egingen dute bihar ere

Bihar larunbata, hilak 12, goizeko bederatzietan, auzolanerako hitzordua eta deialdia eginga dute Ateka Beltzan. «Epe motzeko taldeak» antolatuta du auzolana, «falta diren moldaketak egiteko», azaldu zuten bitartean, taldeek bilerekin jarraitzen dute, behin betiko erabilpena zehazteko xedez, eta horietan parte hartzeko deia ere egin dute.

## LEITZA ▶ ZINEMA



«Codigo 46»-en iragarpen-kartela. HITZA

## ‘Codigo 46’: Fikzioa edo etorkizun hurbila?

Donostiako Zinemaldian hitz egiteko asko eman duen zuzendariaren filma ikusgai

### J. ASTIBIA

Asteburu honetan, gaur eta etzi, 22:30ean eta 19:30ean, hurrenez hurren, zinema aretoa proiektatuko duten filmea *Código 46* izanen da. Lan hau Michael Winterbottomek egindakoa da, ospe handiko zuzendaria bera, Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatu da aurtengo edizioan, esate baterako, britaniarra.

Film honetan Tim Robbins eta Samantha Morton aktoreak dira protagonista, besteak beste. Thriller eta zientzia fikziozko filme modura sailkatuta dago; izan ere, «etorkizun hurbil batean egiazko suerta litekeen gizarte giroan oinarrituta» dago, horregatik da zientzia fikziozko, «baina, akaso, ez hain fikziozko», dio filmaren iragarki orriak: «Gobernuak hiritarrak gogor kontrolatzen dituen gizarte batean, herritarrek ezin bidaia dezakete horretarako aseguru berezirik izan gabe eta segurtasun neurri zorro-

tzak igaro gabe. Horrela, William aseguru ikuskaria hiri batera bidaltzen dute iruzur kasu bat ikertzera. Horretan ari dela Maria ezagutzen du, agiri-faltsutzaile trebea. 24 orduko epea dute edozertarako ere, bidaia aseguruak irauten duen haina, hain justu». Film entretengarria eta zer pentsa eman lezakeena izan daiteke.

### ‘CODIGO 46’ ▶

**Zuzendaria.** Michael Winterbottom.

**Jatorria.** Erresuma Batua. **Urtea.** 2003.

**Iraupena.** 92 minutu.

**Generoa.** Thriller, zinetzia fikzioa.

**Errepartea.** Tim Robins (William), Samantha Morton (Maria), Om Puri (Backland), Jeanne Balibar (Sylvie), Emil Marwa (Mohan), Nina Fog (Wole), Bruno Lastra (Bikku), Christopher Simpson (Paul), David Fahm (Damian Alekan), Nina Sosanya (Any).

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Gure web orrian hainbat gairi buruzko eztabaidak daude irekita, zure iritzieren zain. Gaiak bertakoak izan litezke ala orokorrak. Konparazio baterako: «Nola ikusten duzu etxebizitzaren gaur egungo egoera Tolosaldean eta Leitzaldean?».

### iragarki laburrak ▶

#### LANA

**Langilea.** Iturgintza, berokuntza eta gas lanerako langilea behar da. Deitu telefono zenbaki honetara: 656 41 68 08.

#### SALGAI

**Eskaera osoa.** DEP markakoa. Honda CR 250 98, 99, 2000. Gubxi erabilia. Telefona: 600 90 36 28. (Joxe).

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 11, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

14

hotzena

9

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(Zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Amezketeta.** Arkupe dantza taldean parte hartu nahi duenak (6 urteik gorakoak) 943 65 54 97 edota 943 65 14 93 telefono zenbakietara dei dezake.

**Albiztur-Baliarrain.** EHNA tramitatzeko aukera, etzi. Baliarrain, 12:00etatik 14:00etara, Kultur Etxean; Albizturren, 11:30etik 14:00etara, udaletxean.

**Baliarrain.** Iñaki Martiarena *Mattin* ipuin kontalariaren saioa, Kultur Elejiraren baitan.

**Belautza.** Yoga ikastaroa antolatuta du Kultur Etxean. Iraupena hiru hilabetekoa izango da, asteartero 20:00etatik 21:30etara. 10 euro ordaindu beharko ditu partaide bakoitzak. Interesatuak 943 67 00 20 telefonora dei dezakete, arratsaldez. Izena emateko azkeneko eguna gaur izango da.

**Gaztelu.** Itur Handi plataformaren batzarra, 20:00etan.

**Ibarra.** Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkartearen bilera urteko egitarauari buruz hitz egiteko. 20:00etan, Ibarra plazan.

**Irura.** Zaharren biltokian, *Zahartzarro osasuntsua* hitzaldia 17:30ean, Kutxak antolatuta.

Ondoren, gaztain erre jatea.

**Leitza.** Bide Eginez batzarra du gaur Batasunak. 20:00etan, Aurrera elkartearen.

**Tolosa.** Batasunaren batzarra, Bide eginez prozesuaren inguruan. Bihar, 11:30ean, Kultur Etxean.

**Tolosa.** Engomadora Moderna enpresako langile ohiek bazkaria egingo dute Fronton jatekian bihar. Izen-ematea, 943 67 46 69, 943 67 19 43 eta 943 65 19 55 telefono zenbakietan

**Tolosa.** Mus Azkarreko V. Txapelketa izango da bihar Beotibar pilotalekuan,

16:30ean, lau erregetara. Izen-ematea, Fronton kafetegian, 30 eurotan.

**Tolosa.** Amaro zko dantza taldeak euskal dantza ikastaroak antolatuta ditu. Ostegunetan izango dira, 20:30etik 21:30era, auzo elkarteko egoitzan.

**Tolosa.** Hilaren 26an Amaro zko Kirol Elkartearen festa izango da Ferialekuan. Afarirako izen-ematea Iratxo, Orbela eta Karlatz (Ibarra) tabernetan eta Errotabko (Amaroz) okindegian, 18 eurotan.

**Tolosa.** Oargi mendi elkarteak mendi materialeko merkatu txikia antolatuta du. Bihar da azken eguna. Materiala Oargin bertan (Santa Maria kalea, 4) utz daiteke, 20:00etatik 21:00etara. Informazioa, 630 57 93 95 telefono zenbakian.

**Tolosa.** DBH titulua lortzeko proba libreak izango dira abenduaren 13an Helduen Heziketa Iraunkorrean. Izen-ematea bertan (Igaralde kalea, 23-25), hilaren 18ra arte, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

**Tolosa.** Sodupe-La Arboleada irteera antolatuta du Alpino Uzturrek etzirako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, behea, 943 65 27 89). Bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte, eta bazkide ez direnek 12 euro.

**Villabona.** Herriko web orriak euskaratzeko diru laguntzak emango ditu Udai Euskara Zerbitzuak. Informazioa eta izen-ematea bertan eta 943 69 35 01 zenbakian. Hilaren 18a bitarte.

### ERAKUSKETAK

**Hernalde.** Pakita Barrero donostiararren 20 olio-pintura daude ikusgai Ostatuan: bodegoiak, paisajeak, basoak, loreak, Albizturko eliza, Donostiako Kontxa eta Alderdi Eder lorategiak...

**Tolosa.** Oargi mendi elkartearen Mendiko Hamabostaldian, euskal mendizaletasunaren historiari buruzko argazki erakusketa, elkartearen.

**Tolosa.** Mari Carmen Azaldegi tolosarraren pintura erakusketa dago Fronton kafetegian.

**Tolosa.** Magrebeko II. Jardunaldiak: Iñaki Edrosoren *Magreb-a: herri eta kamioren bidegurutzeta* erakusketa Kultur Etxean.

### MUSIKA

**Tolosa.** Erasol eta Kokein taldeen kontzertuak. 22:30ean, Bonberenean.

**Tolosa.** Jabier Mugaruzaren kontzertua Kultur Etxean, 22:30etan.

### ZINEMA

**Leitza.** *Código 46*. 19:30ean, zinema aretoan. Etzi, 22:30ean, leku berean.

### KIROLAK

#### GAUR

**Pilota.**  
▶ Olalde-Aurrera Saiaz 2 (Nagusien Maila). 19:30, Antzuola.

▶ Zumaia 2-Aurrera-Saiaz 1 (Nagusien Maila). 19:00, Zumaia.

#### Zesta-punta.

▶ Beotibar 3-Zumaia 2 (Nagusia). 19:45, Uzturpe pilotalekua.  
▶ Beotibar 1-Gazteleku 2 (Trabanzos-Rezola; nagusiak). 19:45, Uzturpe pilotalekua.  
▶ Beotibar 2-Gazteleku 4 (Nagusia). 20:00, Beotibar pilotalekua.

#### BIHAR

**Areto futbola.**  
▶ Laskorain KE-Eskoriatza KE

(Lehen Maila B).  
18:00, Usabal.  
▶ Teldeportivo-Hegoalde KE. (Emakumezkoen Ohorezko Maila). Telde.

#### Futbola.

▶ Tolosa CF-Vasconia CD (3. Maila). 16:30, Berazubi.  
▶ Martutene KE-Danena. (Lurraldeko 1. Maila). 17:15, Martutene.  
▶ Amaro-Lazkao (Lurr. 2. Maila). 17:30, Usabal.  
▶ Billabona-Behobia CD (Jubenilen 1. Maila). 15:30, Arratzain.

▶ Gurutzeta KFT-Tolosa CF (Jubenilen Nazional Maila). 17:30, La Siebe Barakaldo.

▶ Amara Berri-Tolosa (Jubenilen 1. Maila). 17:30, Martutene.  
▶ Intxurre-Axular Limp Galaxia (Jubenilen 1. Maila). 15:30, Elorri, Alegia.

▶ Lasarte Oria Texas CD-Tolosa B (Lurr. 2. Maila). 17:15, Michelin, Lasarte.  
▶ Tolosa CF-Luberri KE (Nesken Liga). 15:30, Usabal.

#### Futbol 7.

▶ Zuma GH-Continental Industrias. (1. Maila A). 19:00, Beasaingo zelaian.

#### Pilota.

▶ Aurrera Saiaz-Antiguo 2 (Kadeteen Maila). 17:00, Bidania.  
▶ Aurrera Saiaz-Anaitasuna (Jubenilak). 17:00, Bidania.  
▶ Aurrera Saiaz-Tartalo Etxe (Jubenilen Maila). 17:00, Bidania.  
▶ Altzatarra-Aurrera Saiaz 1 (Nagusien Maila). 10:30, Altza.  
▶ Zarautz-Aurrera Saiaz 2 (Nagusien Maila). 17:00, Zarautz.

#### Zesta-punta.

▶ Beotibar 2-Gazteleku 4 (Nagusien maila). 20:00, Andoain, Arrate.  
▶ Jai Alai 1-Beotibar 2

(Nagusien maila). 11:00, Carmelo Balda, Donostia.

#### ETZI

**Areto futbola.**  
▶ Sestao FS-Ibarra (Lehen A Maila). 12:15, Sestao.

#### Futbol 7.

▶ Ibarra Gakze Asanblada-Easo Motor. (1. Maila A). 11:30, Urnieta.  
▶ Caravanas Tolosa-Redcom. (3. Maila D). 11:00, Felix Garin.

#### Saskibaloia.

Jarrilleros-Tolosa Aralar (Interr.). 12:00, Portugalete.

#### Zesta-punta.

▶ Donostia Jai Alai 2-Beotibar 1 (Trabanzos-Rezola; nagusiak). 11:30, Carmelo Balda.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Areso.** Goizueta, F. Loidi Etxea. 112  
**Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia 7, 943 67 06 48.

### IRRATIA

#### Txolarre Irratia (107.5 FM)

**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa.*  
11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepaosa, albisteak, oharrak.  
11:30ean, Asteasun igandean izango den zaldi lasterketaren inguruan Axier Mujika zaldun zuzkildararekin arituko gara;  
11:45ean, EHNA tramitatzeko asteburuan gure eskualdean egongo diren aukerak, Eusko Gohirekin; 12:00etan, Jabier Muguruza musikariarekin elkarrizketa, iluntzean Tolosan eskainiko duen kontzertuaz; 12:30ean, Tolosaldeko Bilgune Feministaren banda; tartean, Tolosako Gazte Planaz ariko gara, Berdintasun agente Jone Hernandezekin.; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak.  
**19:00-21:00.** *Tolosaldeko Ahotsa* (erreplikapena).  
**21:00-22:00.** *Zaharrak berri.* Hala Bedi Irratianeko hitzaldi saioa, Arrosa Irrati Zentroaren bitartez. Elkarrizketak, iritziak, agenda...

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

## AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Izaro Aranburu Aranalde (Zizurkil). Urtebete. Ebeiko bikiari, Berastegiko familieren partez, zorionak eta muxu handi bat igandeko partez.

# HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zorionak, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletzeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!